

IDEALISMO

Gure gaurko agerkari honetan Arizmendiarrietaren ekintzen bideari helduko diogu. **Idealismo** balioa aurkeztu eta bere eragiña azalduko dugu.

Idealismoa harmoniaren eta perfekzioaren eredutzat jotzen dugu. Askatasunaren eta justiziaren alde borrokatzeko mundu bat lortzea giza izaeraren berezko zerbait da. Berak dionez:

Giza ahalegin kontziente eta arduratsuak egindako askotxo edo ia dena, hasieran, ideal ederra baino ez zen izan. p349

Eta bere eragina azpimarratuz garbi dio:

Ideal nagusiek ez dute zertan eskuragarri izan baliagarri izateko. p054

Orainalditik baino gehiago etorkizunetik bizi izatea ez da luxua, premia baizik. p052

Gizakia ito egiten da denborak markatutako aukera hutsak, aukera mugatu hutsak baino ez baditu. p039

Eta idealismoak ekintza bultzatzen duenean, gure bizitza gainditu eta haratago iraugo du:

Ideiak ez dira hiltzen, eta ideial batzuei leial izanda hiltzen diren gizakiek, gehienetan, beren ideiek oihartzuna izaten eta beste ideia berri batzuk sortzen laguntzen dute. p044

Duela ehunka urte maisuen eskuek idatzi zuten musika entzuten dudanean. Urteak joan urteak etorri ahaztu ezin ditudan eskulturak eta koadroak ikusten ditudanean. Existitzen ez diren gizakien eragina oraindik sentitzen dugunean: uste dut gauza eder horiek sortu zituztenak oraindik bizirik daudela. Beren bidearen bukaeran heltzerakoan, heriotzan atsedena hartu zuten... Hil gabe. p045

Bihotzez jardun behar da, burua bere tokian edukita. p041

Apaiz honen ustez berak egiten eta predikatzen duena ez dago giza errealitateen alor honetan dagokionetik kanpo; izan ere, justizia eta maitasun izaera eta jarrera berrien premia baino ez da, eta uki daitezkeen errealitateen forma har dezakete, gizakiaren neurrira, irabazi, onura eta interes egoista itxia baino gehiago den zerbaiten erantzun gisa. p002